

20 — 21

# EUSKADIKO ORKESTRA

ROBERT TREVIÑO

Zuzendari titularra \* Director titular



SCHUBERT \* WAGNER \* URQUIZA \* SCHUMANN \* SHOSTAKOVICH  
BEETHOVEN \* BRUCKNER \* HINDEMITH \* ONDARRA \* BERLIOZ \* DVORAK  
CARPENTER \* PROKOFIEV \* MAHLER \* RACHMANINOFF \* BARTOK

Michel Tabachnik \* Pablo Ferrández \* Behzod Abduraimov \* Orfeón Pamplonés  
Ruth Reinhardt \* Vadim Gluzman \* Easo Abesbatza \* Gemma New \* Birgit Kolar  
Hans Graf \* Manuel Walsler \* Anja Bihlmaier \* Nikolai Lugansky

# EUSKADIKO ORKESTRA

## 2020/2021 DENBORALDIA. EUSKADIKO ORKESTRA: ELKARTZEN GAITUEN ZIRRARA

- Orkestrak Erromantizismoaren garaia hartuko du ardatz Denboraldi honetan. Hala ikus ahal izango da argi Schuberten sinfonia guztiak barne hartuko dituen programa batean (Schubert maratoi moduko bat), baita Schumanek hartuko duen protagonismoaren ere. Wagnerren presentzia ere nabarmena izango da; bera izan zen garai Erromantikoarekin hautsi zuen konpositore Nagusia. Horiek beste autore garrantzitsu batzuetara bideratuko gaituzte: Mahler eta Rakhmaninov.
- Euskadiko Orkestra: izen bakar eta berezkoarekin aurkeztuko da orkestra, bere marka indartzeko eta balio handiagoa emateko.
- Robert Treviñok laugarren denboraldia izango du hau titular gisa. Epe luzeko begirada musikalarekin jarraituko du, baita orkestraren hobekuntza artistikoaren lanketarekin ere. Bost kontzertu-programa zuzenduko ditu eta berriz eramango du biran orkestra, oraingoan Italiara (Udine, Bergamo, Brescia) eta Zagrebera 2021eko apirilean.
- *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektuak bere zeharkaldiarekin jarraituko du. Mikel Urquizak lekukoa hartuko dio Mikel Chamizori *Nire itsas munstroak* lana aurkezteko.
- Lehen bi programek ezohiko egutegi eta ezaugarriak izango dituzte, covid-19aren pandemiaren ondorioz gerta litezkeen edukiera-murrizpenak kontuan hartuta.

# EUSKADIKO ORKESTRA

Gure zuzendari titular Robert Treviñok dioen moduan, gauza garrantzitsu bat ikasi dugu pandemia-garai hauetan, "etxea ez dagoela leku jakin batean, pertsonengan baizik. Berriki bizitako trauma sakona izan da, eta gure arteko banaketa beste galera modu bat bezala pairatu dugu. Orkestra-kontzertu bat ez da ekitaldi bat bakarrik, kultura, pasioa, artea, entretenimendua eta zaletasuna bizitzeko aukera bat ere bada; horrek GUZTIAK gizateria irudikatzen baitu". Horregatik, orain Euskadiko Orkestraz hitz egin nahi dizuegu, guztiok elkar aurkitzeko leku komun gisa. Gure programazioa ezagutzera eta gozaten hastera gonbidatzen zaituztegu. Aurretik, hemendik aurrera nolakoak izango garen eta datozen hilabeteetan gure jarduera nola kudeatuko dugun azalduko dizuegu.

## Marka berria, Euskadiko Orkestra: Elkartzen gaituen zirrara

Gogoeta honek barne hartu du, baita ere, digital-osteko aroan orkestrak publiko ezberdinen aurrean aurkezteko eta haiekin harremantzeko duen modua. Izen bakarrarekin egingo du: Euskadiko Orkestra. Orain arte erabili diren izendatzeko modu guztiak (EO, OSE, EOS, etab.) ordezkatzeko ditu, izan ere, oso modu aldakorrean erabili baitira eta ez baitira erabilgarriak izan markaren aintzatespena indartzeko. Aldi berean, eta nazioarteko zabalkundea lortzeko, ingelesezko 'Basque National Orchestra' izendapena ere mantendu da, kanpo-esparruan erabiltzeko. Gainera, gure marka berria eta gure izaera aurkezteko egin dugun hausnarketa guztiak "sentitzea", "ulertzea", "bizitzea" bezalako terminoetara eraman gaitu, zirrara komun bat sortuz: musikazaleen familia handiarekin **elkartzen gaituen zirrara**.

## Antolaketa-planteamendua

Lehen antolaketa-planteamendu bat egin dugu edukiera %50ean murrizteko premisari eta covid-19ren pandemiak ezarritako segurtasun-neurriak betetzeko premisari helduz. Gainera, hasieran diseinatutako programazioa aldatu eta antolaketa-planteamendua egokitu dugu. Lehen bi abonu-programak honela egingo dira: lehenengoan, *Schubert*, saio bikoitza eskainiko dugu arratsaldean (18:00 eta 20:15), saio bakoitzean gure publikoaren erdia izatea ahalbidetzeko. Bigarrenean, *Wagner*, hiri bakoitzaren arabera desberdinak izango dira hartutako neurriak, baina formula nagusia izango da kontzertu-egun bat gehiago ematea egitarauari. Bi kasuetan, gure abonatuak esleituko diegu beren kontzertuaz gozatu ahal izango duten eguna eta ordua. Abuztuaren amaieran, kontzertu-aretoetan aplikatu beharreko neurriak ziurtasun handiagorik ezagutzea espero dugu; beraz, ordura arte itzarongo dugu neurri horiek egokiak direla baieztatzeko. Gure publikoari ulermena, pazientzia eta inplikazioa eskatuko diogu, baina, batez ere, orain arte bezalako jarraitzaile sutsu izaten jarraitzeko eskatuko diogu. Horrela bakarrik kudeatu ahal izango dugu arrakastaz ziurgabetasun hori, eta 7000 abonatu dituen aparteko komunitate honen laguntzaz.

# EUSKADIKO ORKESTRA

## Kontzertuen ordutegia

Euskadiko Orkestraren abonatu guztiei kontzertuak hasteko ordutegiari eta beste gai interesgarri batzuei buruz Denboraldi honetan egindako inkesta baten emaitzak aztertu ondoren, **Bilbo, Donostia eta Iruñeko kontzertuak 19:30era aurreratzea erabaki da** (lehenengo bi programetan izan ezik, covid-19aren eragina izango baitute horiek). Hiru hiri horietan jasotako erantzunen %62 ordutegia aurreratzearen aldekoak ziren eta, beraz, neurri hori hartu da publikoaren asistentzia eta abonatuaren antolaketa hobetzeko. Hala ere, **Gasteizen betiko 20:00etako ordutegiari eustea erabaki da**, abonatuaren %39k bakarrik eskatu baitzuen ordutegia aurreratzea.

## ABONU DENBORALDIAREN PROGRAMAZIOA

Euskadiko Orkestraren 2020/2021 Abonu Denboraldia irailaren 25ean hasiko da Gasteizen eta 2021eko ekainaren 17an amaituko hiri berean.

### Denboraldiaren ideia Nagusia: Erromantizismoa

Denboraldi honetan, aspalditik orkestrak egin ez zuen begirada bat dago: protagonismoa erromantizismoan zentratzea. Hau Schuberten sinfonia guztiak barne hartzen dituen programan nabarmenduko da gehien, Denboraldia jaialdi bat balitz bezala irekiko dutenak. Schumann ere garrantzizko figura izango da. Denboraldi honetan Erromantizismoaren aro horren zati bat erakutsiko dugu, baina, era berean, Wagnerrek ideia eta mugimendu kultural hori nola hautsi zuen ere ikusiko dugu.

### Denboraldiko proiektu berezia: Schubert maratoia

Aurreko Denboraldiaren inaugurazioan, 'Zain' izeneko proiektu berezi batek piztu zuen arreta; ez zen aldeaz aurretik jakitera orkestrak zer interpretatuko zuen programa horretan, eta hori izan zuen berezitasun. Denboraldi berri hau ere formato berezi batekin hasi nahi dugu: Schuberten sinfonien maratoia, orkestraren egoitza diren lau hirien artean banatuko den maratoia. Zergatik ekingo diogu Denboraldiari horrelako proiektu batekin? Hainbeste ziurgabetasunen aurrean, jaialdiaren kontzeptuaren aldeko apustua egin nahi genuelako. Izan ere, jaialdiek hain berezkoa duten jai-espirtua, bizi-espirtua eta espirtu kementsua oso beharrezkoa baitugu garai hauetan. Astebetean sinfonia batzuk prestatu eta interpretatzea lan gogorra da, eta erronka berria izango da orkestrarentzat.

# EUSKADIKO ORKESTRA

## Ibilbide luzeko ildoak

Ibilbide luzeko zenbait ildorekin ere jarraituko dugu Denboraldi honetan, horietako asko Robert Treviñoren titulartasunarekin argi eta garbi lotuta:

- Treviño aintzatespen nabarmena eskuratzen ari da nazioartean **Mahler**ren kontura, eta Denboraldi honetan ere oso presente egongo da konpositore bohemiarra. Orkestrak haren 5. eta 7. sinfoniak interpretatuko ditu Denboraldi honetan, baita ahots-lan bat ere: *Lieder eines fahrenden Gesellen*.
- Joan den denboralditik, **Bartok** orkestraren errepertorioan presentzia nabarmena izaten ari da. Orain *Gazteak* programan izango du, Birgit Kolar orkestraren kontzertino iraunkor gonbidatuaren eskutik etorriko den *Biolinerako 1. kontzertuarekin*.
- Antzeko zerbait gertatuko da **Rakhmaninovekin**. Aurreko denboraldietan 2. eta 3. sinfoniak entzun ondoren, bere hiru sinfonien zikloa osatzen duen *1. sinfonia* sartu dugu aurtengo programazioan.
- **Elkano: Mundubira musika bidelagun proiektua** ibilbide luzeko beste ekimen bat da, bere ibilbidea jarraituko duena. Mikel Chamizok ireki zuen bidaia musikala, eta oraingoan Mikel Urquizak hartuko du lekukoa, maiatzean estreinatu ezin izan zen *Nire itsas munstroak* obrarekin.
- **Musika-obren trukea**. Denboraldi honetako beste gertaera garrantzitsu bat **Gary Carpenter britainiarraren *Ghost Songs*** obra Espainian estreinatzea izango da. Royal Scottish National Orchestra, Royal Liverpool Philharmonic Orchestra, City of Birmingham Symphony Orchestra eta Euskadiko Orkestra dira obraren enkargua egin duten lau orkestrak. Enkargu hori gure orkestrak Liverpooleko taldearekin duen harreman estuaren ondorio da. Bidaia horrek alderantzizko ibilbidea ere izango du, eta **Elkano: Mundubira musika bidelagun** proiektuko lanak eta beste euskal konpositore batzuk beren orkestretan interpretatzea eta publiko britainiarrak ezagutzea adostu da.
- **Errepertorio berriaren aurkezpena**: **Elkano: Mundubira musika bidelagun** proiektukoak bezalako obra berriak eta Carpenterren enkarguzko obra izango ditugu, batetik, eta, bestetik, lehendik existitzen ziren baina orkestrak lehen aldiz bere errepertorioan txertatuko dituen obrak ere bai.

## Zuzendariak, solistak eta abesbatzak

Orkestrak berriz ere artista sorta ederra izango du bere programazioan, baina aipatzekoa da hiru programari bakarka helduko diela, gonbidatutako bakarlaririk gabe. Zalantzarik gabe, interpretazioan protagonismo handia emango diote hiru programa horiek orkestrari. Gainontzean, hona hemen Denboraldiko gonbidatuak:

**SOLISTAK:** Atal honetan lehenago gure artean izan ditugun artista handiak izango ditugu berriz gurean: Pablo Ferrández biolontxelojolea, Vadim Gluman biolinjolea eta Nikolai Lugansky pianojolea. Lehendabizikoz egingo diegu harrera Behzod Abduraimov pianojoleari eta Manuel Walser baritonoari. Birgit Kolar, Euskadiko Orkestraren kontzertino iraunkor gonbidatua, estreinakoz ariko da solista paperean orkestra honetan.

# EUSKADIKO ORKESTRA

**ZUZENDARIAK:** Robert Treviñok presentzia nabarmena izaten jarraituko du, bost programarekin, eta gainontzeko programetan Hans Graf eta Michel Tabachnik beteteranoak eta Ruth Reinhardt, Gemma New eta Anja Bihlmaier gazteak izango ditugu.

**ABESBATZAK:** Easo Abesbatzako gazteek Carpenterren *Ghost Songs* enkarguzko obra interpretatuko dute eta Iruñeko Orfeoia Lorenzen Ondarraren *Salve Regina* eta Berliozen *Tristia* jorratuko ditu.

## ORKESTRAREN BESTE JARDUERA BATZUK

### Nazioarteko bira berria

Azken hiru urteetan Austriara (Linz eta Bregenz), Alemaniara (Munich), Frantziara (Paris) eta Turkiara (Istanbul) joan da Euskadiko Orkestra. Orain, Italiara eramango duen nazioarteko bira berri bat diseinatu du, non Udine, Bergamo eta Brescia hiri italiarretan lehen aldiz aurkeztuko den, baita Kroaziako hiriburu Zagreben ere. Bira hau baieztatuta dago eta 2021eko apirilean egitea espero da, Robert Treviño zuzendari titulararekin berriz ere.

### Grabazioak

**KALAKAN.** Lehenik eta behin, joan den Denboraldiko programa batean Gabriel Erkorekaren *Zuhaitz* interpretatu zuen Iparraldeko hirukote honek orkestrarekin. Orduan, elkarrekin proiektu bat abiatzeko nahia sortu zen, eta orain Xalbador bertsolariaren irudia ardatz duen grabazio bat dator, eta haren bilobek, Aire Ahizpak izenekoak, eta Amets Arzallusek ere parte hartuko dute. Unai Urretxok zuzenduko du grabazioa. 21/22 Denboraldian kontzertu batzuk egitea espero da. Orkestrak Izaro, Zea Mays, Dr. Deseo, Ken Zazpi edo Benito Lertxundi bezalako artista eta taldeekin egindako *crossover* sortako ekintza berri bat izango da Kalakanekin egingo den hau.

### Beste erakunde batzuekin lankidetzak

Orkestrak ABAO Bilbao Operaren denboraldiarekin, Bilboko Musika-Música jaialdiarekin eta BBVA Fundazioaren Jakintzaren Mugak Sariarekin duen konpromisoari eutsiko dio. Ezin izango du Donostia Zinemaldian parte hartu filmen soinu-banden ohiko kontzertuarekin Belodromoan, baina Donostiako Musika Hamabostaldian eta Musikasten egingo du agerpena.

Miramongo Matinéeen zikloak eta orkestraren Musika Gela aurten ere egingo dira, baina aurrerago aurkeztuko dira.

# EUSKADIKO ORKESTRA

## DENBORALDI BERRIAREN IRUDIA

ACC Komunikazio Agentzia izan da 20/21 Denboraldi honetako irudiaren sortzailea. Denboraldiaren irudi nagusia collagen collage bat izatea proposatu dute, gainerako programetatik aukeratutako elementuz osatutako irudi bat, bere osotasunean konposizio adierazgarri bat sortzeko asmoz. 10 irudien multzoa filosofiaren ikerketa-lan garrantzitsu baten ondoren lortu da, balio sinboliko eta estetikoak duten irudiak eta konposizioak dira, atzean mezu eta esanahiez beteak. Osotasun bat osatzen duen dimentsio bisual batekin beti, eta Erromantizismoa programazioaren argumentu nagusitzat hartuta.

## ESKERRAK

Azkenik, orkestrak bere jardueren garapenean parte hartzen duten erakunde guztien lankidetzeta eta laguntza eskertu nahi du: 7.000 abonatuak eta publikoa oro har, erakunde babesleak eta laguntzaileak, kultur eragileak, komunikabideak, etab., Euskadiko Orkestraren jarduera ahalbidetzen dutenak guztiak.

Euskadiko Orkestra ez da musika bakarrik, bizitzaren ospakizuna ere bada, gure komunitatearen ospakizuna. Horregatik ematen dizugu ongietorria zure orkestrara, zure etxera. Espero dugu Denboraldi berria zuen gustukoa izatea, orain inoiz baino gehiago gure jarraitzaile baldintzagabeena izatea, eta gure kontzertu guztietan gurekin jarraitzea.

## Euskadiko Orkestra: elkartzen gaituen zirrara

**Abonu eta sarreren salmentari buruzko informazioa:** Gaur egungo egoera dela-eta, oraindik ezin dugu bermatu abonatu berrien izen-ematea, ezta denboraldi osoko kontzertuetarako sarrera solteen salmenta ere. Unean-unean informatuko dugu. Edonola ere, eskaerak orkestraren webgunean ([euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)) eta telefonoz (943 01 32 32) jaso ahal izango dira.

# EUSKADIKO ORKESTRA

BEREN BABESA DUGU ^ NOS APOYAN



Miramón pasealekua, 124. 20014 Donostia - San Sebastián ≈ T. (+34) 943 01 32 32 ≈ F. (+34) 943 30 83 24  
euskadikoorkestra.eus